

IRAKASGAIA: EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (D eredua)

I. ERANSKINA. Ariketaren oinarrizko egitura eta ebaluatzeko irizpide orokorrak**1. atala. Ariketaren oinarrizko egitura**

	AUKERAN	GALDERA MOTA	GAITASUNEN ARABERAKOA
TESTUA (10 puntu)			
A) Hizkuntzaren ezagutza (3 puntu) 1. Hizkuntzari buruzko hausnarketa (testutik ateratakoak dira eta 5 hauetatik 3 galdetuko dira) (bakoitzak puntu 1): deklinabidea, aditza, eratorpena, berridazketak eta sinonimoak.	Ez	Itxia Erdi-irekia	Bai
B) Irakurriaren ulermena (4 puntu) Testuaren gainean 6 ariketa ezberdin posible egin daitezke: 1. Testuaren laburpena. 2. Testuaren Asmoa eta modalizazioa. 3. Testuaren gaia / Testuaren tesia eta argudioak. 4. Testuaren egitura. 5. Testu tipo eta mota. 6. Testuko bi pasarteren ulermen zehatza. 6 horietatik 3 proposatuko dira. 3 horietatik bi aukeratu beharko dira (2 puntu bakoitzak).	Bai	Irekia	Bai
D) Idatzizko ekoizpena (3 puntu) 1. Testuaren inguruan iruzkin kritikoa egin behar da.	Ez	Irekia	Bai

2. atala. Ebaluatzeko irizpide orokorrak

Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiko USE probarako ebaluazio irizpideak Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoaren etapako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duen ekainaren 29ko 72/2022 foru dekretuak ezartzen ditu. Zehazki, idatzizko testuei dagozkien honako berariazko gaitasunak ebaluatuko dira:

4. Berariazko gaitasuna:

IRAKASGAIA: EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (D eredua)

4.1. Testu idatzi eta multimodal espezializatuetan zentzu orokorra, egitura, informazio gailena eta igorlearen asmoa identifikatzea, bereziki testu akademikoei eta komunikabideetakoei dagokienez, beharrezko inferentziak eginez eta irakurtzeko helburu desberdinekin.

4.2. Testu espezializatuen edukia eta forma kritikoki baloratzea, haien kalitatea eta fidagarritasuna baloratuz, baita erabili diren prozedura linguistikoen eraginkortasuna ere.

5. Berariazko gaitasuna:

5.1. Testu akademiko koherenteak, kohesionatuak eta erregistro egokia dutenak sortzea curriculumeko edo interes sozial eta kulturalako gaien inguruan, aurretik egoera komunikatiboa hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartzen dituen plangintza prozesu bat izanik, eta berdinen artean zirriborroak idaztea eta berrikustea edo beste kontsulta tresna batzuk erabiltzea.

5.2. Prozedurak erabiltzea testuak aberasteko, aintzat harturik diskurtsoaren, hizkuntzaren eta estiloaren alderdiak, zehaztasun lexikoarekin eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin.

9. Berariazko gaitasuna

9.1. Norberaren testuak berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, aldaketak funtsatuz hausnarketa metalinguistikoan eta interlinguistikoan, metahizkuntza espezifikoa erabiliz, eta irakurriaren ulermenaren arazoak identifikatu eta konpontzea, hizkuntzaren eta haren erabileraren gaineko ezagutza esplizituak erabiliz.

9.2. Igorlearen komunikazio xedearen eta hautu linguistikoen arteko lotura azaldu eta argudiatzea, baita hartzaileengan dituzten ondorioak ere, hizkuntzaren gaineko ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz.

9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi gailenei buruzko ikerketa-proiektu txikien emaitzak lantzea eta aurkeztea, hipotesiak formulatuz eta orokortzeak ezarriz, kontzeptu eta hizkuntza-terminologia egokiak erabiliz eta hiztegiak, eskuliburuak eta gramatikak modu autonomoan kontsultatuz.

10. Berariazko gaitasuna:

10.1. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak identifikatu eta alboratzea, baita hitzen bidezko agintekeriak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzaileak ere, hizkuntza-, testu- eta diskurtso-mailan erabiltzen diren osagaien inguruko hausnarketa eta azterketatik abiatuta, baita pertsonen komunikazioa bideratzen duten hitzik gabeko osagaietatik ere.

10.2. Estrategiak erabiltzea gatazkak elkarriketaren bidez konpontzeko eta adostasunak bilatzeko, norberaren, hezkuntzaren eta gizartearen esparruetan.

Hizkuntza-ikasgaia izanik, hauei, eta CRUEk 2024ko urriaren 8an egindako gutxieneko akordioetako a.b irizpidearen arabera, testu koherenteak egiteko ebaluazio-irizpidea gehitzen zaie, kohesionatuak, zuzentasun gramatikalarekin, zehaztasun lexikoarekin eta zuzentasun ortografikoarekin, eta ongi aurkeztuak.